

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anjel Alberdi Aldalur

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



1930. urtean jaio zen Azpeitiko Arauntza baserrian. 11 senide izan ziren. Umetan auzoko eskola batean hasi ziren, baina gerra etorri zenean eskolarik gabe gelditu ziren. Gerora, Azpeitiko kalean ibili zen eskolan. Alde batean eta bestean morroi ibilia da, tartean baita Tuteran (Nafarroa) ere, osaba jesuita zegoen lekuan haiei lagunduz. Ardiak betidanik gustatu izan zaizkio, eta beti izan ditu. 2011ko irailean, emazteari eta biei omenaldia egin zieten Legazpiko Artzain Egunean. Kooperatiba bat ere sortu zuten auzoko hiru baserrikoen artean, esne-behiak eta haragitarakoak izan zituzten. Elkarriketa garaian, oraindik ere Arauntzan bizi zen.

Zintak

AZP-093

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Eli
- **Data:** 2012-06-21
- **Iraupena:** 103 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirre, Eli

Pasarteak

1. Gerra zela eta, maisuak alde egin

- **Erref:** AZP-093/002
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:02:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Etxean kuadrilla handia ziren. Eskolan auzoko eskola-etxe batean ibili ziren, eta han zebiltzala atera zen gerra. Marista bat zuten maisu, eta hura joan zenean eskola gabe geratu ziren. Gerora beste maistra gazte bat izan zuten, Claudia. 11 urtera arte ibili ziren eskolan, komunioa egin arte.</p>

2. Etxez etxe lanean

- **Erref:** AZP-093/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Gaztetan leku bat baino gehiagotan ibili zen morroi, aurrena Belaetxen, hiru urtez. Gero, soldadutzara joan zen eta handik bueltan etxean, Premietxeberrin, eta Urrekasoron ere ibili zen. Berriro ere etxera bueltatu zen, anaia ezkondata kalera joan zelako bizitzera. Koinata kalean gustura ez eta senarra (Anjelen anaia) eta biak berriro baserrira joan ziren bizitzera, Etumetara.</p>

3. Errazionamenduan emandakoa txahalentzat

- **Erref:** AZP-093/008
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Ogirik ez zen izaten garai hartan, taloak jaten zituzten. Errazionamenduan "artokila" ematen zieten, familia handia zirelako, gogor-gogorrek izaten ziren eta aitek txahalak amarengandik apartatzeko erabiltzen zituen.

4. Aiako Harrietan eskalatzen eta Candanchun eskiatzen

- **Erref:** AZP-093/012
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzara joan zen, Nafarroa aldera. Eskalatzen eta eskiatzen ibiltzen ziren, eskiatzen ondo ikasi zuenean etxera etortzeko garaia iritsi omen zitzaion. Etxera etortzen zirenean gazta eramaten zuten, han jateko aukera handirik ez zuten izaten eta.</p>

5. Inguru guztian festa, baina trikitilari txarrak

- **Erref:** AZP-093/015
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Orduan, festa, erromeria Orkazagirren egiten zen. Etumetan, Santa Engrazin, Erdoiztan... orduan mendiko auzo guztietan izaten zen erromeria. Udazken aldera, Iturriotzera, Herniora... joaten ziren. Soinujoleak txarrak izaten omen ziren, ordea, Atxabaleta eta Mendizabal aipatzen ditu. "Etxeta"k neskei dantzan ikasteko esaten omen zien, bestela jertseei eusten egon beharko zutela-eta bazterrean.</p>

6. Aizpurutxuko erromeria xelebrea

- **Erref:** AZP-093/016
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Dantza lotua egitea debekatuta zegoen, baina izaten ziren "alkahueteak", apaizari esaten ziotenak. Kongregaziotik botatzen zituzten horrelakorik eginez gero. Aizpurutxon, mugarriaren alde batera dantza loturik egiterik ez eta beste aldean bai, horrela ibiltzen omen ziren. Arratsalde aldean sueltotan aritzen ziren, eta iluntze partean lotu pixka bat egiten zuten.

7. Ardi bakoitzari bere izenez

- **Erref:** AZP-093/018
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:20:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ez du konparaziorik lehengo artzaintzak eta oraingoak. Orduan ardiak ez ziren gobernatzen, ezta klasifikatu ere. Ardiak izenez ezagutzen zituzten, ez zuten markarik edo izaten. Izen xelebre asko ipintzen zizkieten, "Kurkumixe", "Ille kizkurre", "Txordue"... Ardia nolakoa zen, horren arabera izena jartzen zieten.</p>

8. Ardientzako uztaiak dotore prestatuta

- **Erref:** AZP-093/019
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:20:57. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Azkoitiko "Arana"ren txabola erabiltzen zuten Izarraitzen. Inguruan nahiko

larre ez omen zen izaten, mendia ere ez zegoen hesituta, eta janariaren esperantzan Izarraitzera joaten ziren. Ardiei dunbak eta zintzarriak ipintzeko lgokunde eguna izaten zuen aita zenak, ardi onenei jartzen zitzaizkien. Dunbarentzat mihia ganadu-adarra izaten da onena, hark du hotsik onena. Ardientzat gaztainazko uztaiak txukun prestatzen zituzten, goritutako burdinarekin markak egiten zizkieten, zein baino zeinek dotoreagoa.

9. Intseminazioa, kontu berria

- **Erref:** AZP-093/020
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Arkumeak udaberri aldean jaiotzen ziren. Larreetan belarra izaten zela eta, ez zitzaien pentsurik ematen. Intseminazio artifiziala 1990 inguruan hasi zen, artaldeak hobetzeko. Orain, hala ere, ez du horrelakorik egiten.

10. Lehen azokan saltzeko arazorik ez

- **Erref:** AZP-093/021
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:26:42. **Bukatu:** 00:28:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Arkumeak plazan saltzen zituen; plazan segituan saltzen ziren orduan. Arkumeak bizirik eramaten zituzten, plazan bertan pisatu eta saltzeko; beste batzuek ordea, propio enkargatzen zieten eta haiei etxean hilda saltzen zitzairen. Arrautzak eta oilaskoak ere eramaten zituzten.

11. Artileak estimazio handia

- **Erref:** AZP-093/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:28:08. **Bukatu:** 00:29:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ardi mozteko guraizeekin aritzen ziren, San Juanak aurretik edo inguru horretan. Lehen ardi ileak estimazio handia zuen. Traperoez gain, ezkontzen zen norbaitek ere erosten zuen artilea, koltxoia egiteko. Arto-zorroekin egindako "somierak" ere ezagutu zituen.

12. Ardien gaixotasunak

- **Erref:** AZP-093/023

- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:29:58. **Bukatu:** 00:32:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>"Gorrontzia" esaten zieten gaixotasun bati, "begimina" ere asko izaten zen, baina orduan ez zen orain adina gaixotasun izaten. Erremedio batzuk ere aipatzen ditu. Herrenak ere gutxi izaten ziren, batzuetan odol zikina aterata sendatzen dira haiek.</p>

13. Jokurako ahariak etxean

- **Erref:** AZP-093/024
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:32:29. **Bukatu:** 00:35:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Jokurako aharietik izugarritzeko afizioa zuen aita zenak. Berak ere izaten zituen pare bat ahari, anaiak ibiltzen zituen, jokurako prestatzen. Azpeitian ahari-jokurako afizio handia zegoen, igande arratsaldetan lau edo bost apustu izaten ziren.</p>

14. Gatzagi naturalarekin egindako gazta

- **Erref:** AZP-093/026
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:36:31. **Bukatu:** 00:39:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Gatzagi naturala erabiltzen zen. Arkumea hildakoan, gatzagia lehortzen uzten zen, handik zati bat uretan jarri eta gero ur ura botatzen zitzaion esnari. Gazta eskuz egiten zuten, mamia txikitzeko gorostizko tresna bat izaten zen. Gaur egun trapua erabiltzen den bezala, garai hartan, azala egiteko ur beroa botatzen zitzaion gatzari. Egurrezko prentsa gerora ezagutu zuen, lehen eskuarekin estutzen zen dena. Oraingo gazta nahiago du, lehengoa oso lehorra zen. Gatzura ere aprobeztatzen zen, hari ateratzen zitzaion mamia ogiarekin edo taloarekin jaten zuten. Mami asko jaten zen, eta kanpoko jendeak ere oso gustura jaten zuen.

15. Dolarea jarri aurretik sagardoa egiten

- **Erref:** AZP-093/033
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:47:14. **Bukatu:** 00:48:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Etxean egiten zuten sagardoa. Etxean bazuten sagastia baina kanpotik ere ekartzen zuten. Dolarea jarri aurretik, etxe ondoan zegoen aska batean txikitzen zuten sagardoa. Sagastiak ondo zaintzen ziren orduan. Negu guztirako sagarra izaten zuten ganbaran.

16. Sagardoa egitera auzora; lehen auzolan gehiago

- **Erref:** AZP-093/035
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:49:39. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Etxean dolarea egin aurretik Gerondo baserrian ere aritu izan ziren sagardoa egiten. Premietxeberrin eta Arauntzan batera samar egin ziren dolareak; Premietxeberrin non zen ere esaten du. Orduan auzolana gehiago izaten zen. Gari-ebakitzen zazpi lagun ere ezagutu izan ditu.

17. Sainuko elur-zuloa eta kontserbatzeko erak

- **Erref:** AZP-093/036
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:53:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

Eguraldi freskoarekin ondo kontserbatzen zen janaria; bestela gazitu ere egiten zen. Elur-zulo bat ere bazen inguruan, txikia. Elurra egiten zuenean hura bete eta gero handik hartzen zen izotza.

18. Eskuzko dolarea eta matxakea

- **Erref:** AZP-093/038
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:56:12. **Bukatu:** 00:58:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Garai hartako dolarea nolakoa zen azaltzen du. Tina bat izaten zen, eta haren barruan ardatza eta prentsarekin estutzen zen sagarra. Hasieran matxakari eskuz eragin behar zitzaion, baina gerora sega-makina jarri zuen. Urtean bi mila litro inguru sagardo egiten zen. Botilaratzea beti ezagutu izan du, botilak garbitzea izaten zen lantegirik txarrena.

19. Lehengo baserria eta oraingoa

- **Erref:** AZP-093/040
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:58:44. **Bukatu:** 01:02:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lehen nekagarria zen baserriko lana, baina orain baino errentagarriagoa. Kaleko jendea ere baserrietara joaten zen bolada batean, janari truke. Egiten zen gehiena etxerako izaten zen, ganaduarentzat ere ez zen pentsurik izaten.

20. Astegun eta igandetako jatorduak; gonbidautzak

- **Erref:** AZP-093/041
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:02:14. **Bukatu:** 01:03:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Martin
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Astegunetan baba gorriak jan ohi ziren, igandetan, berriz, zerbait desberdina izate aldera, baba zuria edo halakoren bat. Egun berezietan garbantza ere izaten zen. Festetan, lehengusu edo sendikoak etortzen ziren eta etxean bazkalduta joaten ziren, urrutikoren bat bazen bertan geratzen zen lotan.

21. Herri-kiroletako txapeldunak

- **Erref:** AZP-093/043
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:04:01. **Bukatu:** 01:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Herri-kiroletan lehen ziren izen ezagunak aipatzen ditu; aizkoran, Korta, Arriya... Harri-jasotzen, Errekartetxo. Trontzan, berriz, apustuak ez baina, bera aritua da, basoan ibili zenetan.</p>

22. Haragia saltzeko tratuak eta harakinak

- **Erref:** AZP-093/044
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 01:05:15. **Bukatu:** 01:09:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Aita Herniozalea zen. Zestoako feriara ere joaten zen. Tolosakoa ere gustukoa zuen, eta Herniotik zehar joaten zen. Abereren bat saltzeko bazuen eramaten zuen Azpeitira, baina bestela ikustera joaten zen. Irundik eta Donostiatik ere etortzen ziren harakinak. Anjel bera makina bat behi gizen saldutakoa da, orduan batek ez bazen besteak erosten zuen eta.</p>

23. Gaztetako bihurrikeriak

- **Erref:** AZP-093/049
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:12:55. **Bukatu:** 01:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gaztetako aldrebeskeriak kontatzen ditu. Apaizarena egiten, meza ematen ari balitz bezala ibili zenekoa kontatzen du.

24. "Hara, hori arto-zuritzekoa izango da"

- **Erref:** AZP-093/051
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:15:06. **Bukatu:** 01:16:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Askotan esan izan den esaera da, txisteren bat edo kontatutakoan "Hara, hori arto-zuritzekoa izango da". Orduan, arto-zuritzen kontu eta txiste ugari izaten baitzen. Bertsotan eta santa-eskean eta ibili izan da Anjel bera. Santa-eskean ateratako diruarekin, hiru egun egin zituzten Tolosako inauterietan.

25. Hainbeste bertsolariren tartean, bera ere bertsotan probatua

- **Erref:** AZP-093/052
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:16:51. **Bukatu:** 01:18:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Odria bailaran eta inguruetan bertsolari asko zen; Korostietan, Basarri zena, Txapel, Joxe Lizaso (Saberrin hazitakoa) eta Zepai behintzat bai. Anjel beheko mailakoa omen zen, ordea, ez zen haiekin aritu. Lizasorekin ibili zen eskolan, "karrera bera egindakoak gaituk" esaten omen zion Lizasok. Orkazagirren, Lazkanorekin aritu izan omen zen.</p>

26. Arroitan "Santo Domingo" gurutzea eta San Ferminetan erromeria

- **Erref:** AZP-093/053
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:18:03. **Bukatu:** 01:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Arroitan egiten zen erromeria garai batean, San Fermin egunez, baina han ez zen bertsolaririk izaten; soinu-joleak bakarrik. Lehengo gurutzeak "Santo Domingo" izena omen zuen, eta Sarralle errementariak gurutze berria jarri eta erromeria egin behar zela eta hasi omen zen. Urte asko iraun ez bazuen ere jende asko etortzen zen.</p>

27. Bertsolariak ahots indartsua; emakumerik ez plazetan

- **Erref:** AZP-093/054
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:19:30. **Bukatu:** 01:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Lehen bertsolariek ez zuten mikrofonorik izaten, Azpeitiko udaletxeko balkoian kantatzen zuten. Ahots indartsua izaten zuten oraingoan aldean. Bertsolari ona izan arren, Txapelek ez omen zuen horren eztarri sendoa. Emakumeak ez ziren bertsotan aritzen, baina Pello Errotaren alaba bertsolaria zela esaten omen zuten. Gaizki ikusia zegoen orduan emakumeak bertsotan edo trikitiarekin aritzea.</p>

28. Anaia tenientearentzat zigarroak egiten

- **Erref:** AZP-093/056
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:23:03. **Bukatu:** 01:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Gerra garaian anaia zaharrena ibili zen, zazpi urtez egon zen soldadu. Beste anaia, berriz, gerra ondorenean hiru urtez. Anaia zaharrak, Antoniok, zigarroak txukun egiten omen zituen, tenientea besoa hautsita, harentzat egiten aritzen omen zen. Gaztetan etxera joan aurretik ahoa garbitzen aritzen ziren, erre zutela ohar ez zitezen.

29. Gaztetako aldrebeskeriak, "Hanka-haundi"ren inguruan

- **Erref:** AZP-093/057

- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:25:02. **Bukatu:** 01:26:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Sekula ez da izan inori kalterik egitekoa, baina aldrebeskeriak egiten zituzten. "Hanka-haundi"ren estatuaren inguruan egin zuten trakeskeria kontatzen du.

30. Auzokoen artean kooperatiba

- **Erref:** AZP-093/059
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:28:31. **Bukatu:** 01:31:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Odria eta Axangoa lagun zituela kooperatiba sortu zuten, Danimarkatik ekarritako esne-behiekin. Beraiek 33 behi ekarri zituzten, Etorra-ra beste hainbeste, eta Aizarnara gehiago. Aurrena itsasontzian eta gero kamioietan ekarri zituzten. Gurelesa sortu zen garaian baserritar asko hasi zen esne-behiekin. Oraingo bariantea dagoen ingurura jaisten zuten esnea, eta han "letxeroak" hartzen zuen. Ia etxe guztietan ateratzen zen esnea, gutxi baina ia denetan.

31. Eroritako baserriak

- **Erref:** AZP-093/064
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:36:00. **Bukatu:** 01:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Badira auzoan eroritako etxeak: Salaberri, Munaundi... Lau edo bost. Eta ozta-ozta eusten diotenak ere bai zenbait.

32. Baserriak eutsi dio euskarari

- **Erref:** AZP-093/066
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:38:32. **Bukatu:** 01:40:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Herri batetik bestera asko aldatzen da euskara, baina dena da bat. Orain baino askoz okerrago egon zen euskara gerra ondoren. Baserriak eutsi dio euskarari neurri handi batean. Emakumeek erdararako joera handia izan dute. Azpeitia izango da herririk euskaldunena, eta hori bertako jendea gutxi nahastu delako. Azpeitian kanpoko jende gutxi sartu zen. Zumarragan, oster, asko. Azpeitian industria berandu samar sartu zen.

33. Asko hazi da Azpeitia etxez, baina ez jendez

- **Erref:** AZP-093/067
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:40:27. **Bukatu:** 01:42:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Zeharo aldatu da Azpeitia aspaldian. Landeta eta Loiola aldean etxe berri asko egin da, baina kalean etxe huts asko dago. Biztanleria gutxi hazi da. Antzinako Azpeitiaren mugak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com